



# **I.ERANSKINA**


## **DATU KUANTITATIBOAK**

## ELGOIBARKO DATU KUANTITATIBOAK (ERROLDA 2016)

2016ko erroldaren arabera, biztanleen % 62 da euskalduna eta %15 ia-euskalduna. Euskararen ezagutzaren datuak gora egin du, 1986an % 52,98koa izatetik % 62, 27koa izatera pasa da. Erdaldunak, berriz, jaitsi egin dira, % 29,1 izatetik % 22,52 izatera. Datu hauek erakusten dute ia hiru elgoibartarretatik bi euskaldunak direla.

### EUSKARAREN GAITASUNA ELGOIBARREN 2016 (EUSTAT)


■ Euskaldunak ■ Ia euskaldunak ■ Erdaldunak





Euskararen ezagutza maila altuena 34 urtetik beherakoek dute, hauen artean %81a euskalduna baita.

### 02-34 URTE BITARTEKOEN GAITASUNA 2016

■ euskaldunak ■ ia euskaldunak ■ erdaldunak




Euskaldunen ehunekoa 1986an % 52,98 izatetik 2016an % 62,27 izatera pasa da.




- Lehen hizkuntzari dagokienez, 2016ko erroldaren arabera, herritarren %52aren lehen hizkuntza gaztelania edo beste hizkuntza bat da. Ezin dugu ahaztu gaur egun Elgoibarren 42 nazionalitateko jendea bizi dela. Aldiz, 14 urtetik beherakoen lehen hizkuntza euskara da %39,4an, eta biak (euskara eta gaztelania) %15,9an, beraz, haurren lehen hizkuntzan euskararen igoera txiki bat eman da.


### Lehen hizkuntzaren bilakaera 1986-2016



### HAURREN (2-14) LEHEN HIZKUNTZAREN BILAKAERA (Eustat)




### GAZTEEN (15-34) LEHEN HIZKUNTZAREN BILAKAERA (Eustat)




## EUSKARAREN KALE-ERABILERA (Eustat eta Soziolinguistika Klusterra)

Etxeko hizkuntzaren erabilera datuak eroldaren bidez jasotzen dira eta EUSTATEk argitaratzen ditu. Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, berriz, Soziolinguistika Klusterrak egiten du baina udalek ere egin izan dute herri mailako neurketa. Elgoibarko kasuan, 2000. urtetik 2012. urtera burututako Kale Neurketak Elgoibarko Udalak egin zituen, eta hortik aurrerakoak Soziolinguistika Klusterrak egin ditu, bata 2014an, eta azkena, 2017an.

2011n eta 2016an egindako neurketen arabera, kaleko erabilera % 37an mantendu da baina etxeko erabilerak igoera txiki bat izan du % 43,45etik % 47,74ra.



Ondorengo grafikoan jaso dugu neurketa guztietan behatutako euskararen erabilera orokorrak Elgoibarren izan duen bilakaera:



*Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Elgoibarko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2017.*

## 2017ko hizkuntzen kale-erabileraren neurketan jasotako emaitza nagusiak


Atal honetan, Elgoibarko 2017ko hizkuntzen kale-erabileraren neurketan jasotako emaitza nagusiak laburbildu ditugu:

- Kanean entzundako hamar elkarrizketetatik ia lau izan dira euskaraz (%35,9).
- 2014-2017 epealdian lau puntu jaitsi da euskararen kale erabilera: %39,7tik %35,9ra.
- Paseo eta jolaslekuetan erabili ohi da euskara gehien (%43,1). Jarraian, ikasleen irteerak (%35,2), gazte edo txikiteo giroa (%30,8) eta etxetik kanpoko familia giroa (%28) ditugu. Azkenik, erosketa giroan entzun da euskara gutxien (%23).
- Emakumezkoek (%39,0) gizonezkoek (%31,6) baino euskara gehiago erabiltzen dute.
- Haurrak (2-14 urte bitartekoak) dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%55,3). Jarraian, helduak (25-64 urte bitartekoak) izan dira euskaraz gehiago entzun ditugunak (%32,5). Gazteek (15-24 urte bitartekoak) %25,1ean erabiltzen dute euskara. Azkenik, adinekoak (64 urtetik gorakoak) dira euskaraz gutxien entzun ditugunak (%24,5).
- Haurrak bakarrik (nagusirik gabe) daudenean %43,9 da euskarazko erabilera. Nagusiek, euren artean (haurrik gabe) ari direnean, %22,7an darabilte euskara. Haurrek eta helduek osatutako taldeetan, berriz, %58,9ra igotzen da erabilera.
- Hurrez eta nagusiez osatutako taldeetan, haurra hitz egiten ari bada erabilera altuagoa da (%65,9), nagusia hitz egiten ari denean baino (%49,6).



## IMMIGRAZIOA

Hamar urtean zehar asko igo da etorri berrien kopurua: 2007an baino 704 pertsona gehiago. Gaur egun Elgoibarren 42 nazionalitateko jendea bizi da.

Elgoibartarron jatorria 2007-2017, Eustat



## IRAKASKUNTZA DATUAK EREDUEI DAGOKIENEZ




### Ondorio batzuk

- Atzera egin behar dugu hizkuntza ereduaren bilakaeran izandako aldaketak baloratzeko. Oso esanguratsuak dira kopuruak:
- Azken 20 urteetan, D ereduaren % 60,2tik %96,7ra igo da, B ereduaren desagertu egin da eta A ereduaren %3,3ra jaitsi da
- D ereduaren nagusitu egin da irakaskuntzako maila guztietan, eta aipagarria da azken urteetan Lanbide Heziketan IMHk eta MEKak egiten ari diren ahalegina D ereduaren sustatzeko.


## HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

EUSTAetik jasotako datuen arabera, Elgoibarren, euskaldunen %85,14 alfabetatua dago eta %11 erdi-alfabetatua, datu positiboa, eta kontuan hartu beharrekoa ekimenak antolatzerakoan.

### EUSKALDUNEN ALFABETATZE MAILA 2016




### Alfabetatzearen bilakaera %





\* Azken urteetako matrikulazioa Elgoibarko bi euskaltegietan:



\* **Azken urteotako bilakaera Elgoibarren:**

Herriko euskaltegietako ikasle kopuruetan ez da aldaketa handirik izan azken urteotan. Kontuan hartzekoa da baita ere, gaur egun ikasketak euskaraz egiten dituzten ikasle asko dagoela, eta horrek eragina izan duela ikasle gazteengan, gehienek badute eta tituluren bat.

Ikasle talde homogeneousak sortzeko arazoak ere ugaritu egin dira, jendearen lan egiteko modua ere aldatu egin delako, adibidez, jende asko dago txandaka lan egiten duena.

Aipatzekoak dira azken urteotan sortu diren AISA taldeak. AISA ikastaroak euskarara hurbiltzeko harrera-ikastaroak dira, eta 2015-16-17 urteetan 114 etorri berri aritu dira AISAn euskara ikasten.

“Ostalaritza” eta “Industria” sektoreetan lan egiteko behar diren euskarazko gutxieneko komunikazio gaitasuna lortzeko Euskara Plus ikastaroetan 20 lagunek jardun zuten 2016an.

Azken urteotan, ikasturtero, batez beste, 45 lagun aritzen dira Mintzalagun egitasmoan, 10 bidelagun eta 35 bidelari. Helburua euskaltegietan ikasitako edo ikasten ari diren euskara kalera atera eta erabiltzea, hortaz, ezagutzatik erabilerara dagoen jauzia egitea.